

- ▶ **EZ IDATZI EZER MEGAFONIAZ AGINDU ARTE**
- ▶ **ITZALI ETA GORDE SAKELAKO TELEFONOA**
- ▶ **KOMUNERA EZIN ZARA JOAN, PREMIA LARRIA EZ BADA**
- ▶ **ZER EDUKI BEHAR DUZU MAHAI GAINEAN?**

1. Argibide-orri hau
2. Erantzun-orriak: 3 guztira (1 irakurmenarentzat; 2 idazmenarentzat)
3. Identifikazio-orriak: 2 (1 IVAPentzat; 1 zuretzat)
4. Nortasun-agiria
5. Boligrafoa

Ezer falta baduzu, eskatu zure guneko zaintzaileari.

▶ **ZER EGINGO DUZU GAUR?**

Gaur **IDATZIZKO AZTERKETA** egingo duzu.

Idatzizko azterketak bi proba ditu: **IRAKURMEN PROBA** eta **IDAZMEN PROBA**. Bi proba horiek gaindituz gero, aurrerago, mintzamen-proba egingo duzu (begiratu atzealdean).

IDATZIZKO AZTERKETAren ezaugarriak

- ▶ Azterketaren **bi probak egin behar dituzu** (irakurmen-proba eta idazmen-proba).
- ▶ **Azterketa-koaderno**a jaso egingo dugu, ezin izango duzu zurekin eraman:
 - a) Azterketa-koadernoan, irakurri arretaz ariketa bakoitzaren aurreko oharra.
 - b) Irakurmen-probako ariketen **erantzunak markatzeko, mahai gainean duzu erantzun-orria**. Gaizki erantzundakoengatik ez da punturik kenduko.
 - c) Idazmen-probako ariketak **egiteko, erabili aparte banatu zaizkizun orriak. EZ DA ORRI GEHIAGORIK BANATUKO**.
 - d) **Azterketa amaitu dela esaten denean, ezin da idazten jarraitu**; hala eginez gero, azterketan marka bat egingo zaizu eta ez da hortik aurrerakoa zuzenduko.

Idazmen-proba anonimoa izango da, beraz:

- ▶ Proba hau identifikatzeko dituzu identifikazio-orriak. Bat zuretzat da, bestea IVAPentzat.
- ▶ Orri bietan duzu zure **identifikazio-kodea**. Laukitxoetan adierazita dagoena da.
- ▶ Geuk esaten dizugunean, **idatzi zure kodea idazmen-ariketa egiteko dituzun aparteko orrietan**, horretarako dauden laukitxoetan. **Azterketa-koadernoan ere idatzi beharko duzu kodea**.

Zalantzarik baduzu, galdetu zaintzaileari.

ARGIBIDE ORRIA

Azterketa-eguna: 2024-04-20

Irakurmen-probaren erantzun-orria betetzeko modua: irakurri erantzun-orriaren atzeko aldean datozen argibideak.

Erantzun bat ezeztatu nahi baduzu, beheko ilaran (EZEZT.) markatu behar duzu ezeztatu nahi duzun aukera eta goiko ilaran berriro erantzun nahi duzuna. Begiratu irudi honetan nola ezeztatu dugun C aukera, horren ordez A aukera markatzeko:



Zalantzarik baduzu, galdetu zaintzaileari.

IDATZIZKO AZTERKETA amaitutakoan:

1. Kendu irakurmenaren erantzun-orriaren orri horia eta gorde zeuretzat.
2. Gorde zeuretzat den identifikazio-orria.
3. Prestatu entregatu behar dituzun orriak eta itxaron zure lekuan, zaintzaileak alde egin ahal duzula esan arte:
 - ▶ Irakurmenaren erantzun-orri zuria.
 - ▶ Azterketa-koaderno
 - ▶ IVAPentzako identifikazio-orria.
 - ▶ Idazmenaren erantzun-orriak.

Bertratze-agiria behar baduzu, **Azterneten** eskuratu eta deskargatu ahal izango duzu asteazkenetik aurrera.

(www.ivap.euskadi.eus – euskara – hizkuntza-eskakizunak – Azternet)

OHARRAK:

EMAITZAK ETA AHOZKO AZTERKETA

- ▶ **Irakurmen-probaren erantzun zuzenak** gaur arratsaldean argitaratuko dira:
 - ✓ IVAPen web-orrian: www.ivap.euskadi.eus
 - ✓ *Twitter* bidez iragarriko da argitaratu direla.
- ▶ **Azterketa idatziaren emaitzak 2024ko maiatzaren 22an** argitaratuko dira IVAPeko webgunean.
- ▶ Ahozko azterketak **ekainaren 12an, 13an eta 14an izango dira. Maiatzaren 22an** zehaztuko ditugu hizkuntza-eskakizun bakoitza egiteko egunak eta orduak.
- ▶ **Ahozko azterketaren** egunean, **mintzamen-proba** egingo da. Ez da entzumena neurtzeko berariazko entzumen-probarik egingo.

ERREKLAMAZIOAK

- ▶ **Erreklamazio-epea:** Maiatzaren 22an zehaztuko ditugu epeak.